

EUSKARA BATZORDEAK 2011ko AZAROAREN 9an IZANDAKO BILKURARI DAGOKION AKTA.-

Batzarreratuak:

Esperanza Uriarte and (Euskara Zinegotzia)
Idoia Fernández and. (Ezker Abertzalea)
Josu Erkiaga jna. (Udal Euskaltegia)
Igone Olabarria and. (Gernikako AEK)
Pernando Basterretxea jna. (Bust. Eusk. Bizi Elk.)
Igor Orue jna. (Bust. Eusk. Bizi Elk.)
Laura Etxabe and. (Seber Altube ikastola)
Anabel Gerrikagoitia and. (Mertzedeko ikastetxea)
Rosa Okariz and.
Jose Antonio Uriarte jna. (Busturialdeko Irrati Telebistaa)
Luis Ortuzar (EAJ eta Gernika-Lumoko Institutua)

Idazkaria:

Estiñe Astorkia and. (Euskara dinamizatzailea)

Hasiera ordua: 18:40

Amaiera ordua: 20:00

1).- Aurrekontuaren zirriborroa aztertu eta ekarpenak jaso

Zinegotziak Euskara Sailaren 2012rako aurrekontu-zirriborroaren azalpenari ekin dio. Bereziki igoerak izango dituzten partiden argibideak eman ditu (aurrekontuaren zirriborroa.doc eranskinean gorri markatutakoak):

- Euskara ikasteko diru-laguntzak: matrikulazioak gora egin duelako
- Etorkinak: "Eusliderrak" proiektua azaldu du. Ahize aholkularitzaren bidez gazteen artean hizkuntza lidergoa jorrazteko ekimena da eta Mertzedeko ikastetxean abian jarrita dago, ikasturtearen hasierarekin batera.
- Euskara plana duten enpresentzako diru-laguntza partida: egiten duten ahalegina eta emaitzak saritzeko helburuarekin
- Ahotsak proiektuaren garapen maila ere azaldu da. 2012an azken zatia burutuko da eta igoera txiki bat aplikatuko zaio partidari.

Ondoren **proposamenak** egiteko tartea ireki da eta hauek izan dira jasotakoak:

BAGABIZ

- Idoia Fernándezek Bagabiz hilabetekariari eman beharreko diru-laguntza mantendu edo igotzeko proposamena egin du; laguntza jasotzearen truke Euskara Sailak jarritako irizpideak betetzeko eskatuta.
- Zinegotziak Euskara sailaren proposamena azaldu du: diru-laguntzak jasotzearen truke hizkuntza irizpideak (kalitateari dagozkionak) betetzea, horretarako euskara zerbitzuak laguntza eskainiko lioke; era berean, euskara sailak atal tinkoa izan beharko luke argitalpenean: artikuluren bat edo informazioa sartzeko aukera.

ETORKINAK

- Josu Erkiagak proposatu du etorkinen integrazioa beste herrialde batzuetan nola egiten den jakiteko ikerketa lana egiteko partida bat txertatzea. Hizkuntza bat baino gehiago dituzten lurraldeetako harrera nolakoa izan ohi den; Katalunia, Suitza eta antzeko tokietan integrazioa nola bideratzen den aztertu, ondoren, gurean ekintza eraginkorragoak garatzeko helburua erdiesteko.
- Idoia Fernándezek lan munduarekin lotzeko proposamena egin du. Plana duten enprekin akordioaren batera heldu langileak euskara eskoletara joan ahal izateko, edo antzeko formularen bat.
- Estiñe Astorkiak azaldu du Artez Euskara Zerbitzua ari dela Busturialdeko Caritasekin gai horri heltzeko proiektua lantzen. Helduei begirakoa, euskara eskoletara joan ezin dutenentzako lanketa.
- Igone Olabarriak ere jakinarazi du euskaltegian azken boladan hartutako etorkin kopurua hazi egin dela eta matrikulatu izanaren arrazoiak jasotzen ari direla; ostean, transmisioa lantzeko. Lehenik matrikulazio arrazoen diagnostikoa egin, eta, ondoren, nondik ekin jakiteko.
- Zinegotziak azaldu digu Busturialdeko Gizarte Zerbitzuetako immigrazio teknikariarekin batzartu dela euren lan egiteko modua aztertzeke asmoz eta, prozesu horretan guztian euskararen inguruko informazioa nola bideratzen duten jakiteko. Orain arte hizkuntza konturik ez da landu izan.
- Idoia Fernándezek euskara ikasi duten etorkinak erreferente bihurtzeko beharraz hitz egin du.

ANBULATORIOA

- Idoia Fernándezek anbulatoriorekin urratsik eman den galdetu du, eta, bide batez, arlo horretan eragiten jarraitu beharra azpimarratu du.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

- Estiñe Astorkiak proposatu du Udala Soziolinguistika Klusterraren bazkide egitea. Klusterra zer eta zertarako den azaldu du eta horrek Udalari ekar diezazkion abantailez ere hitz egin du: Soziolinguistika Klusterraren misioa



euskararen berreskurapenerako eta normalizaziorako soziolinguistika ezagutza garatzea da. Horretarako, azpiegitura, baliabide, eta baldintza egokiak sortzea, esparru teoriko eta aplikatuaren arteko zubiak eraikitzea, eta arloko eragileekin hausnarketarako zein lankidetzarako bilgune-sareak osatzea. Bazkide izanda, Udalak bere kabuz garatu ezin dituen ikerketa proiektuak lankidetzan jorratzeko aukera izango luke. Bazkidetza mota desberdinak daude: batetik, erabiltzaileak eta, bestetik, sustatzaileak. Horren arabera, kuotak ere bi motatakoak dira: 262 € erabiltzaile kuota eta 1.575 € sustatzaile kuota (Ikus www.soziolinguistika.org webgunea).

Erabakia:

Kide bakoitzak aztertu egingo ditu egindako proposamenak eta hurrengo bileran aurrekontuen zirriborroa itxiko dugu.

2).- HITZAREKIN 2012-2015 eperako hitzarmena.-

Zinegotziak Udala eta Hitzaren arteko hitzarmenaren berri eman du. Aurreko hitzarmenean baino diru-partida txikiagoa esleitzea erabaki da, baldintzak aldatu egin direlako, eskualde bietako egunkariak batu direnetik. Hitzarmenak bi atal ditu: diru-laguntzari dagokiona eta sustapenari dagokiona.

Idoia Fernándezek hitzarmena bitan zatitzea proposatu du: alde batetik diru-laguntza, eta bestetik sustapena. Azken horri dagokionez, aurreko sustapen kanpainetako emaitzak zeintzuk izan ziren jakitea beharrezkotzat jo du, ondoren, aurrera begira nola jokatu erabakitzeko.

Erabakiak:

Hitzarmena bi zatitan banatzea onartu da:

- **Diru-laguntza: 2€biztanleko hitzarmena**
- **Sustapena: aurreko kanpainak aztertu, eta, ondoren, erabakiak hartu.**

3).- Euskararen eguna.

Euskara dinamizatzaileak egitarauaren berri eman du. Eta bide batez 2011ko *Abixadan* zein egunetan egin aztertu dugu; era berean, aurten hirugarren kirola txertatzeko aukeraz ere jardun dugu.

Erabakiak:

- Euskararen eguna dela-eta prentsaturako egitaraua postaz bidaliko zaie batzordeko kide guztiei eta, abenduaren 1eko irakurketa gidoia ere bai.**
- Euskararen egunaren egitarauaren iragarkiak: Hitzan azaroaren 25ean eta 29an (“faldioa”), eta Oizmendin iragarkia (zehazteke).**



-Abixadan abenduaren 18an egingo da kirol elkarteek egoki baderitze.

4.- Hurrengo bilera.

Aurrekontu zirriborroa amaitzeko bilera egutegi eta ordutegiaz jardun dugu.

Erabakiak:

-Hurrengo bilera azaroaren 22an, 18:30ean

-Bilera deia aste beteko epearekin egin, agenda arazoak ekiditzeko

5.- Norberak lekarkeena.

Ez da ekarpenik egon.

Izp.: Euskara Zinegotzia
Esperanza Uriarte

Izp.: Euskara dinamizatzailea
Estiñe Astorkia